

## HE1 (B2)- IDAZMENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

### 1. ADIERAZPEN-MAILA : TESTUAREN MAILA OROKORRA

*Hizkuntza-maila zabala du eta gai da bere intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai da idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai da gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen dien garrantzia nabarmenduz.*

*Irakaskuntzako langilea den neurrian, era askotako hartzaileei (lankideei, gurasoei, ikasleei) zuzendutako testu egokiak idazteko gai izango da komunikazio-asmo jakinekin.*

— **Hizkuntza-maila/ Kalitatea.** Zer-nolako maila du idazlanak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntza Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?

— **Ataza, testu-mota eta eraginkotasuna.** Atazari egoki heldu al dio? Testua egoki ireki, garatu eta itxi al du? Helburua lortzeko moduko testua eraiki al du?

— **Baliabide espresibo orokorrak.**

**Konplexutasun sintaktikoa.** Perpaus mota desberdinak eta egokiak hautatu al ditu ala oinarri-oinarrizko sintaxia darabil?

**Lexikoa.** Hitz-altxor egokia darabil ala hitz-multzo txikia eta mugatua? Asko al dira esanahi zabalegiko berba zehaztugabeak, errepikapenak eta berba makuluak?

### 2. KOHERENTZIA ETA KOHESIOA: TESTUAREN ANTOLAMENDUA ETA ELABORAZIOA

*Kohesio-mekanismoen sail mugatua erabiltzen du bere esaldiekin diskurtso argia eta koherentea osatzeko.*

#### KOHERENTZIA

— **Edukia.** Informazio nahikoa eta kalitatezkoa al darabil? Mezua ulertu ahal izateko behar diren datuak ematen ditu? Informazio larregi edo gutxiegi ematen du? Ideien jarraipena koherentea al da tesiarekin? Kontraesanik ba al dago enuntziatuen artean?

— **Egitura/ Paragrafoak.** Egoki banatu al ditu paragrafoak helburuari begira? Informazioaren ordenamendua logikoa da? Paragrafo bakoitzak ideia desberdin bat garatzen al du? Paragrafoak behar bezain landuak dira? Zuritu gabeko baieztapen edo iritziak asko al dira? Paragrafotik paragrafora eroso igarotzen al da? Erraz irakurtzen al da testua?

— **Egokitasuna/ Erregistroa.** Ba al dago gaiarentzat baldres edo arruntegi, teknikoegi edo konplexuegi gertatzen den adierazpenik? Idazlearen tonua familiarregia, zuzenegia edo urrunegia da jasotzailea zein den kontuan harturik?

#### KOHESIOA

— **Erreferentziarako mekanismoak (izenordainak, erakusleak, zenbait adberbio...).** Ba al dago errakuntzarik izenordainen eta erakusleen erabileran? Elementu bat berriz aipatzeko baliabide desberdinak erabiltzen ditu ala beti berbera?

— **Loturak.** Esaldien arteko kohesioa eraginkorra al da? Testu-zatien arteko erlazio logikoak (kausa-ondorioa, ordena, emendioa, aurkaritza...) adierazten dituzten lokailuak eta testu-antolatzaileak ondo erabilia daude?

— **Puntuazioa.** Puntuazio-akats larririk (punturik eza, komarrik gabeko aposizioak...) badago? Diskurtso unitateak egoki bereizten al ditu? Galdera eta harridura-zeinuak ondo erabiltzen ditu?

### 3. ZUZENTASUNA: ZUZENTASUN FORMALA

*Gramatika nahiko ongi menderatzen du. Ez du ulergarritasuna galarazten duen akatsik egiten, eta bere akats gehienak zuzentzeko gai da.*

— **Morfosintaxia.** Zuzen erabiltzen al ditu oinarriko arau morfosintaktiko gehienak? Akats asko al ditu? Larriak al dira? Zenbateraino eragozten dute testuaren ulermena eta helburua? Arau nagusiren batean sistematikoki huts egiten du? Hitzen ordena zuzena da?

— **Ortografia.** Hitz arruntetan akats ortografiko larririk ageri da?

## HE1 (B2) - MINTZAMENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

### 1. ADIERAZPEN-MAILA:

*Hizkuntza-maila zabala du, gai orokorren deskribapen argiak egiteko eta gai horiei buruz duen ikuspegia aditzera emateko modukoa, hitzen bila dabilela agerian utzi gabe. Badaki zehatz eta argi hitz egiten bere intereseko gai askori buruz. Gai da gaur eguneko gorabeheren gainean bere ikuspuntua adierazteko, aukera desberdinen alde onak eta txarrak azalduz. Kohesio-mekanismoen sail mugatua erabiltzen du bere esaldiekin diskurtso argia eta koherentea osatzeko, nahiz eta mintzaldia luzea denean nolabaiteko "urduritasuna" erakuts dezakeen.*

*Eskola-gaiei buruzko lexikoa aski garatua du; eta bestelakoetan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desegokiak, erdaratik hartutakoak edo parafraasiak erabili behar baditu ere.*

— **Hizkuntza-maila / Kalitatea.** Zer-nolako maila du ahozko produkzioak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntza Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?

— **Baliabide espresibo orokorrak.** Ba al dauka nahikoa baliabide maila horretako hizkuntza- funtzioak eroso betetzeko ala ezintasun handia dauka oraindik? Adierazpen-kate luze samarrak osatzeko gai al da?

— **Koherentzia/ Egokitasuna.** Azalpenaren egitura kontuan hartu al du? Testua egoki ireki, garatu eta itxi al du? Azalpen argia egin al du? Behar diren datuak era ordenatuan eskaini ditu, informazio larregi edo gutxiegi eman gabe? Ba al dago errepikapenik edo kontraesanik esandakoen artean? Gaiarentzat arruntegi edo formalegi gertatzen diren adierazpenak erabiltzen ditu?

### 2. JARIOA / ERRITMOA

*Diskurtso-zatiak nahiko erritmo uniformean sortzeko gai da; dena dela, zalantza egin lezake egituren edo esamoldeen bila ari denean. Eten luze gutxi egiten ditu.*

*Hizketan gutxienezko jarioa badu, inoiz edo behin osatu gabeko esaldiak eta etenak egin arren.*

— **Abiadura.** Abiadura egokiz hitz egiten du? Nahikoa erraztasun ba al dauka ala nekoso egiten da haria segitzea?

— **Erritmoa.** Erritmoa nahikoa erregularra al dauka ala zalantza eta erraztasun eza salatzen duten etenak egiten ditu? Isiluneak estaltzeko "eee...", "mmm..." bezalako betegarriak aspergarri gertatzen dira? Tentsiorik eragiten al du?

— **Berrantolaketak.** Neurritz kanpoko berrantolaketak egiten ditu?

### 3. ZUZENTASUNA

*Gramatika nahiko ongi menderatzen du. Ez du ulergarritasuna galarazten duen akatsik egiten, eta bere akats gehienak zuzentzeko gai da.*

— **Morfosintaxia.** Arau morfosintaktiko nagusiak (ergatiboa, aditzaren komunztadura, laguntzaile-mota, juntagailu eta menderagailu nagusiak...) ondo menderatzen ditu? Akats sistematikorik egiten al du horietan? Akats gehienak berehala zuzentzen al ditu?

— **Ahoskera / Doinua.** Fonemak ongi burutzen ditu? Erdal maileguetarako lege fonetikoak betetzen ditu? Hitzen azentu eta esaldien intonazio egokiak ditu?

### 4. ELKARRERAGINA

*Gai da jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai da elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta bere iritzia azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan. Diskurtsoa hasten badaki, une egokian hartzen du hitz egiteko txanda eta amaitu behar duenean amaitzen du elkarrizketa, beti dotoretasunez ez bada ere. Eguneroko gaiei buruzko eztabaidetan parte hartzen du, bere ulermena sendotuz, besteak parte hartzera bultzatuz, etab.*

— **Elkarrizketa.** Erraz eta nahiko eroso parte hartu al du elkarrizketan? Hizkuntza-funtzioak egoki bete al ditu? Bere ikuspuntua azaltzeko eta hari eusteko erraztasunik ba al du?